

## BALIO PROPOSAMENA

Gure produktua aukeratzeko arrazoiak argiak dira; batetik, zapatilek zola aldagarria dutenez, bezeroak diru asko aurreztuko luke, eta horrela ez luke zapatila berririk erosi beharko zola gastatzen zaien bakoitzean edo kirol berri bat hasten diren bakoitzean. Gainera, diseinua beste markengandik bereizgarria izango da.

Lehen aipatu dugun bezala, asko bereizten beste zapatila marka batzuetatik. Alde batetik, lehenengo marka izan gara zola trukagarriarekin zapatilak sortzen. Gure produktuaren berezitasuna zolak direnez, hauek pertsonalizatzeko aukera egongo da, hau da, zolaren kolorea eta zola mota aukeratu dezakete, gainera izena jartzeko aukera ere egongo da.

Horrez gain, gure zapatilak lana, denbora eta dirua errazteko helburuarekin eginak daude; izan ere, zapatilak erosterakoan diru eta denbora asko galtzen dira, alde batetik, dendara joan eta hain beste zapatila probatu behar dituzu, gainera, askok ez dira zure gustukoak izango. Baina gure zapatilekin ez da arazo hori egongo, dendetan zola ezberdinak probatzeko aukera izango duzu, horrela zolaz aldatu dezakezu eta ez zapatila osorik, eta aldi berean honengatik diru askoz gehio aurreztuko duzu, zapatila bat erosterakoan, zola berriak erosi behar dituzu bakarrik eta ez zapatila garesti berri bat.

Lehen esandako moduan, hainbat diseinu ezberdin ditugu, alde batetik, zapatila berak, forma eta kolore ezberdinak ditu eta bestetik aipatutako bezala, zolak kolore ezberdinak izango ditu eta bezeroak nahi duena aukeratu beharko du. Koloreak; arrosa, urdina, zuria, horia eta beltza izango dira. Gainera gure webgunean zapatilak pertsonalizatzeko aukera egongo da eta hor zoletan edo zapatiletan izena ipintzeko aukera emango da.

Zapatila bakoitzak 100 euro balioko du, hemen zapatila pare bat eta bi zola aldagarri etorriko dira, bezeroak iritsiko zaizkion bi zolak aukeratu beharko ditu. Zolak banaka ere saltzen ditugu, bakoitzak 35,7 euro kostatuko du. Zola mota asko ditugu; hala nola hirian korrika egiteko, mendian ibiltzekoak, mendian korrika egiteko, bizikletan ibiltzeko, abiadura hobetzeko...

Zapatilak Espainiako merkatuan egongo dira salgai, denborarekin proiektua ondo dijoala ikusten badugu, merkatu internazionalera salto egongo genuke.

Hauek erosteko gure webgunean “www.zenithsport”-en egongo dira salgai, bestela fisikoki erostea nahiago dutenentzat forum, decathlon, sprinter eta beste hainbat dendetan egongo dira salgai.